

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 10a

630. zenbakia

AISIALDIA/Obren eraginez, berdegunea murriztagoa izango da aurten; uda denboraldirako txartela ateratzeko aukera eskaintzen du Kirol Zerbitzuak

Bihar hasi eta irailaren 15era arte iraungo du udako denboraldiak igerilekuan

EDU MENDIBIL

Udako denboraldiari hasiera emango zaio bihar, zapatua, Agorrosingo igerilekuan. Hainbat aldaketa ekarriko ditu horrek, igerilekuaren ordutegia zabaldu egingo baita aste bukaeretan eta abuztuan. Hala ere, obrak direla eta, kanpo eremua murriztagoa da aurten.

Orain dela bi aste hasi ziren kirolguneko bigarren faseko lanak eta hori dela eta kanpo eremua, berdegunea, dezente murriztu dute: igerileku aurreko zatia eta goikaldeko berdegunea izango dira zabalik. Egunotan igerilekuko langileak txukuntze lanetan izan dira eta bihar, zapatua, dena gertu izango da uda denboraldiari hasiera emateko. Esan bezala, udako denboraldiak datorren irailaren 15era arte iraungo du.

Ohikoa denez, denboraldi berriak hainbat aldaketa ekarriko ditu igerilekuaren ordutegian: aste barruan 07:00etatik 21:00ak arte izango da zabalik igerilekua eta aste bukaeretan eta abuztuan, berriz, ordutegi zabalagoa izango du: 09:00etatik 21:00ak arte.

UDA DENBORALDIRAKO TXARTELA

Beste nobedadeetako bat zera izango da: uda denboraldirako txartela ateratzeko aukera eskainiko du Kirol Zerbitzuak: 18 urte-tik beherakoek 31,40 euro eta nagusiek 47,35 ordaindu beharko dituzte. Era berean, hamar bainutarako bonuak jarriko dituzte salgai. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.

Udalaren aurreikuspenak betetzen badira, 2006ko udarako estalitako bi igerilekuak gertu egongo dira. Iazko irailean hasi zituzten kirolgune berriko lanak.



Kanpoko igerilekurik gabeko bigarren uda izango da aurtengoa.

E.M.

San Antonio auzoko jaiak ospatuko dira bihartik aurrera

E.M.

Bihar, zapatua, San Antonio auzoko jaiak hasiko dira. Goizetik Josu eta Jokin trikitilariak arituko dira eta eguerdian umeendako basurdeak eta poniak izango dira. Arratsaldean mus txapelketa jokatu da Gure Ametsan, 16:00etan, eta arratsaldean umeendako jolasak izango dira, 18:00etatik aurrera. Gauean, berriz, Angie DJarekin disko festa egongo da.

Domekan, Txistulari Bandarekin diana 09:00etan eta jarraian salda hartzeko aukera izango da Gure Ametsan. Bandak emanaldia egingo du Espoioian, 12:30ean eta 20:00etan Salbea egingo da San Antonioko kaperan.

SAN ANTONIO EGUNA ASTELEHENEAN

Astlehenean, San Antonio egunean, meza izango da 10:30ean eta



San Joxepeko abesbatzakoak Gure Ametsa elkartean, orain dela bi urteko argazkian.

BERRIGARA

eguerdian, berriz, San Joxepe abesbatzaren emanaldia, Gure Ametsa ondoan. Txirrindulari lasterketa, berriz, hilaren 18an izango da.

Bada bitxikeri bat aurten: jai batzordeak Canalejas tabernako hegazkin txikiaren eta Simon Arrietaren koadroaren historia berreskuratu du esku-programan.

LABUR

1955ean jaiotako bergararrek afaria egingo dute datorren ekainaren 25ean

1955ean jaiotako bergararrek afaria egingo dute ekainaren 25ean, Zabala jatetxean, 21:00etan. Izenematea (15 euro aurrez) Frontoi-ko tabernan edo Zabala jatetxean egin daiteke. Afari egunean frontoian elkartuko dira, 20:00etan.

'Bergara y bergareses en el boletín de la RSBAP' liburua aurkeztuko dute gaur

Bergara y bergareses en el boletín de la RSBAP liburua aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, udaletxean, 19:00etan.

Besteak beste, Emilio Mujika Enkotegegi liburuaren egilea, Victoriano Gallastegi alkatea, Jose Maria Urkia Euskalerriko Adiskideen Elkarteak Gipuzkoako presidentea eta Fernando Salazar EAEko zuzendariak hartuko dute parte ekitaldian.

Hurrengo zapatuko Trikiti Festako bazkari eta afarirako txartelak salgai daude

Hurrengo zapatuan, hilaren 18an, Lehenengo Trikiti Festa egingo da Bergaran. Herriko trikitizaleen ekimena izan da festaren antolaketa eta egun osoan izango dira ekitaldiak.

Bazkarira eta afari meriendara joateko txartelak Jardunen salgai daude, eguaztenera arte, hilaren 15era arte. Batera eta bestera joateko txartelak 20 eurotan salgai daude, 15 euro langabeendako. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefonoan.

Itsas bidaiain goaz, zeren zain zaude?

%7 Desk.
Erreserba ekainaren
20a baino lehenago

+ %10 Desk.
Erainoko Desk.
Iberojet Cruceros-en au-
rrez erreserba egitearren



GRAND LATINO Itsas bidaia

MANTENU OSOA	EK.	UZT.	ABUZ.
Barrualdea	479€	600€	609€
Kanpoaldea	724€	860€	860€

VALENTZIA, VILLEFRANCHE (Monako),
LIVORNO (Florentzia),
CIVITAVECCHIA (Erroma),
NAPOLI, TUNISIA,
VALENTZIA.

GRAND MISTRAL Itsas bidaia

MANTENU OSOA	EK.	UZT.	ABUZ.
Barrualdea	576€	721€	762€
Kanpoaldea	870€	1.031€	1.074€

BARTZELONA, LIVORNO (Florentzia),
CIVITAVECCHIA (Erroma),
NAPOLI, TUNISIA, MALTA,
BARTZELONA.

16 urtera arteko
**UMEA
DOAN**

GRAND VOYAGER Itsas bidaia

MANTENU OSOA	EK.	UZT.	ABUZ.
Barrualdea	771€	872€	1.039€
Kanpoaldea	994€	1.127€	1.349€

VENEZIA, DUBROVNIK, CORFU,
HERAKLION, RODAS,
ISTANBUL, ATENAS
EDO ALDERANTZIZ.

**HEGAZKINA
BARNE**
nora/nondik Madril
edo Bartzelona

%7ko deskontua erreserba ekainaren 20a baino lehenago egitearren; iragaritzen diren preziook deskontua barne dute. %10eko deskontua gehitzeko aukera 120 egun edo gehiagoko aurrerapenarekin (deskontu hau ez dago barne) Iberojet Cruceros-en erosteagatik. Prezioak pertsonako, logela bikoitzean, pensio osoko erregimenean, irteera konkretuentzat bakarrik. Zatoz gure agentzietara eta galdetu beste irteera batzuez eta promozioaren baldintzez. Karburantearen igoera, tasak, eskupekoak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Prezio zuzenak, tipografiako akatsik egon ezean. **ESERLEKU MUGATUAK**

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU.



VIAJES IBERIA

902 108 108

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO

viajesiberia.com

ONDAREA/ Roman Larrañaga eta Juan Idigoras dira irudi gehien eman dituzten partikularrak

Udal Artxiboa: dagoeneko 17.000 irudi inguru erregistratu dituzte argazki fondoan

EDU MENDIBIL

Orain dela hamar urte hasi ziren Udal Artxiboan argazkiak biltzen. Dagoeneko 16.838 irudi erregistratu dituzte. Hainbat fondotako ekarpenez gain, partikularren dohaintzek erabateko garrantzia izan dute argazki bilduma osatzeko orduan.

Eustaquio Agirreolearen fondoa, Valleko Kondearena edo Bergarako Kultur Ekintzarena jaso dituzte Artxiboan. Zaharrenak Valleko Kondearen fondokoak dira, 1850 urtearen ingurukoak. Esan bezala, partikularren dohaintzak funtsezkoak izan dira bilduma osatzeko. Urtetan argazkilari lanetan ibilitako Roman Larrañagak 5.234 irudi eman ditu.

40 URTE ARGAZKIAK ATERATZEN

Juan Idigorasen kasua ere deigarria da. Udal Artxiboan berak eramandako 4.302 irudi erregistratu dauzkate. Idigoras 1960ko hamarkadan hasi zen argazki makinarekin hango eta hemengo irudiak hartzen. Esaterako, Udalak antolatutako ekitaldietan oso ohikoa izan da Idigoras kamera gainean zuela ikustea. Horrez gain, Bergarako baserri gehien argazkiak atera ditu. Era berean, Santa Marina parrokiaren ia-ia notario lanak egin dituela esan genezake: hango 800 bat argazki eman dizkio Artxiboari. Bergarako armarrak ere zintzo-zintzo jaso ditu Idigorasek. Zera esan digu: "Kodak 6x9 kamera batekin hasi nintzen. Orduetik hainbat makina izan ditut eta azkenaldian Contax batekin ibi-

li naiz. Nire zaletasun handia izan da argazkilaritza. Auskalo zenbat argazki atera ditudan... Hori bai, nahiko narrasa izan naiz argazkiei data eta izena jarzterako orduan. Baserriena Lorentxo Laskurainekin batera hasi nintzen. Gutxi batzuk geratuko dira guztiak izateko... Eta orain argazki horiek guztiak ondoen artxiboan izango dira. Lan bikaina egiten dute han eta jakingo dute nola erabili".

Arantzazu Oregi Artxiboko arduradunaren hitzetan, "informazio piloa emateaz gain, irudiek erabilera anitza dute: tokatu zaigu epaiketa baterako erabiltzea edo Ameriketara joandako senitartekoei jatorrizko baserriaren argazkia bidaltzea. Herritarrak argazkiak ekartzera eta kontsultatzen animatu nahi ditugu. Eskerrik beroenak argazkiak ekarri eta informazioa osatzen lagundu diguten guztiei".




1



2



3



4

1. Simon Arrietaren omenezko ekitaldia udaletxean, 1971ko maiatzean. Ezkerretik eskumara, jarrira, Aurelio Arrieta Simonen semea, Luis Laskurain orduko alkatea, Antonia Agirreolea Simonen alarguna eta Moises Eguren apaiza azaltzen dira. 2. Labeaga baserria, Elosun. Irudia 1984ko otsailekoa da. 3. Santa Marina gurutzearen medailoa. 4. Santa Marinaren irudia prozesiorako gertatuta parrokiaren kanpoaldean, 1968an. ARGAZKIAK: JUAN IDIGORAS

Partikularren
dohaintzak
funtsezkoak izan
dira argazki
bilduma osatzeko

BERGARA

Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

OHARRA

Honen bitartez jakinarazten da datorren ekainaren 14an goizeko 07:30etatik 12:00etara bitartean Espoloiko zuhaitzak fumigatuko dira eta kontuan izanda botako den botikan toxikoa izan daitekeela gomendatzen da ordu horietan leiho guztiak itxita izatea eta bertatik ez pasatzea.

Halaber, lan hauek direla eta inguruan autorik ez aparkatzea eskatzen da.

Bergaran, 2005eko ekainaren 8an.

ALKATEAK



IGERIKETA/ Bergara Igeri Elkarteko ordezkariak bikain Sant Andreun jokatuako proban

Beterano mailako igerilariak, sasoi betean Bartzelonan

EDU MENDIBIL

Bergara Igeri Elkarteko Unai Alberdi, Jabier eta Juan De Borja, Iñigo Gallastegi eta Kepa Irizar beteranoek emaitza bikainak lortu zituzten Bartzelonan, aurreko aste bukaeran. Uztailaren 1ean Gipuzkoako Master Txapelketan izango dira, Ordizian.

Juan De Borja 25-29 urte bitarteko mailan lehiatu zen eta gaitzakoak 30-34 urte bitartekoetan. Unai lehena izan zen 100 eta 400 m crawl probetan; Jabierrek lehen postua eskuratu zuen 50 eta 100 m bular estiloan; Iñigok 100 m bizkar proba irabazi zuen; Kepa lehena izan zen 200 estiloetan eta bigarrena. 100 m bizkar proban eta Juan, berriz, 50 m crawl proban lehen postua eta 100 m-koan bigarrena lortu zuen. 4x50 m-ko erreleboetan, lehen postua lortu zuten Iñigo, Jabier, Kepa eta Unai.

Hamabost talde izan ziren lehiari maiztaren 28an Bartzelonako Sant Andreu auzoan jokatuako txapelketan.



Jabier De Borja, Gallastegi, Juan De Borja, Irizar eta Alberdi, Bartzelonan.

GIPUZKOAKO TXAPELKETARA

Uztailaren 1ean Gipuzkoako Master Txapelketa jokatu da Ordizian, eta Bartzelonan bizi den Iñigo Gallastegi izan ezik, han izango dira Bergarako igerilari beteranoak.

Era berean, uztailaren 10ean Mallorkan jokatu den Espainiako Txapelketara ere joateko

ahaleginetan dira bergararrak.

Elkarrekin entrenatzea ez dute erraza. Unai Alberdi Oñatiko igerilekuan entrenatzen da, Juan De Borja eta Kepa Irizar Bergarakoan ibiltzen dira eta Jabier De Borja, berriz, Arrasatekoan. Hala ere, ondo baino hobeto eza gutzen dute elkar, urte askoan ibili baitira Igeri Elkartean.

IGERI ELKARTEA

Ariznoako alebin eta infantil mailetako gimnastak onenen artean

E.M.

Infantil mailako Ariznoako taldeak lehen postua lortu zuen Euskadiko Txapelketan, Gasteizen. Ainhoa Martinez, Ainara Amoros, Jurdana Pildain eta Lide eta Usoa Toledok osatzen dute taldea. Alebin mailakoak 5. tokian sailkatu ziren. Cristina Etxeberrria, Ainara Gonzalez, Olatz Ugalde, Mainer Cabo, Irene Aguayo, Judith Dobao eta Uxue Lazkanok jardun zuten. Aurretik, Hernanin, Gipuzkoako Txapelketan, lehen postua lortu zuten. Sokako ariketan, Cristina Etxeberrria irabazi zuen, eta Ainara Gonzalez seigarren sailkatu zen.



Alebin mailako gimnastak emaitza bikainak lortu dituzte Hernanin eta Gasteizen.

ARIZNOA

LABUR

Ipintzako txapelketa: nesken eta mutilen futbol partiduak jokatu dira egunero

Gaur, egubakoitza, alebin, futbol-7 eta senior mailako nesken partiduak izango dira Ipintzan, 17:30etatik aurrera. Astelehenean jardunaldi berri bat jokatu da, ordu berean. Eguenean, berriz, beteranoen mailako gizonezkoen partiduak izango dira, 19:00etan.

Bestalde, bihar, zapatua, futbol-11ko mutilen bi partiduak izango dira, 09:15ean hasita eta hurrengo astean egunero izango dira partiduak Ipintzan, 19:00etan.

Uda kanpainako lehen txandan parte hartzeko izenematea ekainaren 17ra arte zabalik

Udaleko Kirol Zerbitzuak Uda Kanpainako aurtengo programa kaleratu du. Lehen txanda ekainaren 27tik uztailaren 8ra izango da eta aurreko urteotan bezala aukera zabala izango dute interesatuek: igeriketa, tenisa, eskalada, spinninga, aerobika, yoga hasitapena, eta abar. Bigarren txanda, berriz, ekainaren 27tik uztailaren 22ra izango da. Lehen txandarako izenematea ekainaren 17ra arte zabalik. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zerbakian.

Gazte mailako futbol taldeak Gipuzkoako finala galdu zuen Vasconiaren aurka, 2-1

Bergara KEko gazte mailako futbol taldeak galdu egin zuen Gipuzkoako finala Vasconiaren aurka, zapatuan. Ibon Leibarren golari esker, bergararrak aurreratu ziren, baina donostiarrak buelta eman zioten partiduari, 1-2. Hala ere, denboraldi bikaina egin eta gero ohorezko gazte mailara igoera lortu dute mahoneroek.



Uribesalgo, Lanzaroteko Iron-Man proban

Xabier Uribesalgo 27 urteko bergararrak Lanzaroteko Iron-Man proban hartu zuen parte maiztaren 21ean. Proba berrizant gogorra da hangoa: 3,8 km igerian, 180 bizikletan eta maratonia. Uribesalgok 12 ordu eta 38 minutu behar izan zituen proba amaitzeko. Sufritu arren, gustura aritu zela esan digu Xabierrek. Bihar, zapatua, Zarauzko Triatloian izango da.

NANARRI
LAN BERTIKALAK

- PODAK, TEILATUAK, TXIMINIAK, KANALIOAK, BAJANTEAK, FATXADAK ETA PATIOAK.
- ANDAMIORIK GABEKO LANAK.

Tel.: 676 952 968
680 641 401

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ZINEA/ Herriko zinemasale talde batek 3.000 sinadura jaso ditu azken bi hilabeteotan, eta alkatearen erantzunaren zain daude

Novedades berriro zabaltzea eskatu dute

EDU MENDIBIL

Zinemazale talde batek Novedades aretoa berriro zabaltzeko eskaera egin zion alkateari martitzenean, prentsurrekoan. Martxoaren 28an zinema aretoa itxi zutenetik 3.000 sinadura jaso dituztela adierazi zuten. Maite Aristegik zera esan zuen: "Beste irtenbideren baten zain egon gabe, Novedades aretoa berre-raikitze eta zinema zerbitzua martxan jartzeko eskatzen diogu alkateari. Zerbitzua beharrezkoa da herriarentzat. Jakin dezatela ez dugula etsiko eta zinema eskatzeko mobilizazioekin jarraituko dugula".

AURREIKUSPEN FALTA

Jesus Mari Kalboetxeagaren ustez, aurreikuspen falta egon da Udalaren aldetik: "Bazekiten Novedades ixtear zegoela, zinemako eraikina aspalditik dagoelako hirigintza antolaketatik kanpo. Hala ere, ez dute ezer egin arazo horri aurre egiteko. Alkateak

esan zigun Zabalotegiko birmoldatzea bizpahiru hilabetezko kontua zela eta Seminarioko auditorioa 2007rako izango genuela. Berri zehatzagoak telefonoz emango zizkigula esanez agurtu zen, baina deiaren zain gaude oraindik". Inguruko beste hainbat herritan gertatu bezala, zinemaren gestio munizipala soluzioa izan daitekeela gaineratu zuten Kalboetxeagak.

MINIMOA ESKATZEN

Taun-Taun eta Oihulari Klown antzerki taldekoek eta Asier Altuna *Kixi* zinemagileak ere beren kezka azaldu zuten, Bergaran kultura jardueretarako areto aproposik ez dagoelako gaur egun.

Itxaso Azkarate Taun-Tauneko kideak esan zuenez, "gogo eta energia pixka batekin Novedades berriro zabal dezakete. Minimoagatik borrokatzen ari gara. Izan ere, zinema eta antzerki emanaldiak jasotzen zituen areto bakarra itxi digute; zerbitzua beharrezkotzat jotzen dugu".



Herriko zinemasaleak Novedadeseko leihatilan ilaran jarri ziren, martitzeneko prentsurrekoaren ostean, protesta modura.



Gaztetxearen 5. urteurrena ospatzeko ekitaldiak datozen egunotan

Gaztetxearen 5. urteurrenako ospatzeko hainbat ekitaldi izango dira aste bukaeran: gaurko batzarren ostean afaria izango da; bihar, zapatua, Gazkiñe taldearekin kontzertua 22:00etan; domekan, tsunamiaren gaineko diapositibak eta esperientzien kronika Jon Plazaolaren eskutik; astelehenean, malabarismo ikastaroa 16:00etan eta martitzenean *Haz lo que debes* filmaren emanaldia, 22:00etan. Eguaztenean, berriz, serigrafia ikastaroa egongo da, 16:00etan.

LABUR

Abdon Juaristiren erakusketa antologikoa domekara arte zabalik Aroztegin

Abdon Juaristi margolariaren erakusketa antologikoa ekainaren 12ra arte dago zabalik, Aroztegi aretoan.

Aste barruan 18:00etatik 20:30etara eta zapatuan eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da aretoa zabalik.

Udal Musik Bandak emanaldia egingo du domeka eguerdian Espoloiko kioskoan

Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domekan, Espoloian. Kontzertua 12:30ean hasiko da.

Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean hainbat pieza eskainiko dituzte Bandako kideek. Aurretik, kalejira egingo dute.

Dani Laskurain margolari bergararraren lan bat saritu dute Iruñeko Udalaren lehiaketan

Dani Laskurain margolariaren lan bat saritu dute Iruñean. Udalak formatu txikiko lanen lehiaketa deitu zuen, *Ibaiko ingurunea* izenburuko gaiarekin. Laskurainen *Casa flotante* lanak akzesita eskuratu du. 1.000 euro eta lanaren 25 grabatu irabazi ditu Danik.



GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

ZAHARRAKBERRI

Erretiratuek bidaia txartelak merkeago eros ditzakete, hainbat konpainiaren beherapenekin


IRATI AGIRREAZALDEGI

Aldaketa dakar 65 urte betetzeak jendearen jokamoldeetan. Kontsumo ohiturak ere aldatu egiten dira; izan ere, patrika ez da beti betea izaten aisialdi jardueretan dirua gastatzeko adina. Hala ere, badira hainbat ekintza erretiratu eta pentsiodunek merkeago egin ditzaketenak. Besteak beste, garraioan beherapenak izaten dituzte.

Erretiratu gehienek euren adina eta ekonomia kontuan hartuta ez dute ibilgailu propioak izaten. Hori dela eta, garraio konpainiek hainbat beherapen eskaintzen dituzte.

Renfe konpainiak, esaterako, *Tarjeta dorada* delakoa eskaintzen du. Renfeko edozein leihatilatan NA aurkeztu eta hiru euro ordainduta urtebeterako txartela eskura daiteke. Txartel horrekin aldiriko eta eskualdeko trenetan %40ko deskontua izango dute erretiratuek; ibilbide luze-ko trenetan eta AVE delakoan, astelehenetik eguenera %40 izango da deskontua eta gainontzeko egunetan %25.

Eusko-Trenak ere badu txartel berezi bat erretiratuendako. Txartela eskuratzeko Bilbon Atxuriko geltokira edo Donostian Amarakora joan behar da. NAREN fotokopia, argazki bat eta ordainketa egin izanaren agiria eraman behar dira. Ordaindu beharreko zenbatekoa hiru euro



Renfe konpainiak *Tarjeta dorada* delakoaren bidez beherapenak eskaintzen dizkie erretiratuiei.

da. Behin txartela esku artean izanda, bidaia guztiek 45 zentimoko kostua izango dute.

Pesa konpainiak, bestalde, ez du inolako beherapenik egiten erretiratuendako. Hori dela eta, haserre dira ibarreko erretiratuak, Debagoienean konpainia horrek eskaintzen baitu zerbitzua.

HEGAZKINA ETA ITSASONTZIA

Beste autobus konpainia batzuek ere eskaintzen dituzte beherapenak ibilbide eta data jakinetan: Alsa, Bilmanbus eta Enatcar dira konpainiak eta beherapena %20 izan ohi da.

Bestalde, hegazkinez edo itsasontziz bidaiatzeko ere lor ditzake

beherapenak erretiratuek. Iberiak, adibidez, %25eko deskontua eskaintzen du hegazkinez egindako joan-etorriko bidaietan. Transmediterranea itsasontzi konpainiak, berriz, %20ko beherapena egin ohi du bidaia txartela erosterakoan, udako goienboraldian izan ezik.

LABUR

Mendi biltzarra ekainaren 15ean Altsasu elkartearen

Datorren ekainaren 15ean, asteazkenean, San Joxepeko erretiratuak Legazpi, Irun eta Oretetako erretiratuak elkartzeko dira mendi biltzarrean. Urteroko ohitura da hainbat elkartetako kideek bat egitea, eta iaz 150 lagun elkartzu ziren. Gorkako Altsasu elkartearen dute aurten hitzordua. Hamaiketako egingo dute lehenengo, eta ondoren, bazkaria 14:30ean izango da elkartearen bertan. Biltzar hori aprobetxatuko dute hainbat elkartetako erretiratuak elkarren berri izateko.

Aialara irteera eta abesbatzaren emanaldia

San Joxepe erretiratuaren elkar-teak Aiala bailarara joateko irteera antolatu du. Ekainaren 23an egingo dute aipatutako irteera. Izenematea erretiratuaren egoitzan egin daiteke, ekainaren 17ra arte. Argibideak 943 76 30 09 zenbakian.

Bestalde, San Antonioko ospakizunen barruan, San Joxepeko abesbatzak emanaldia egingo du astelehenean, ekainaren 13an. Gure Ametsa elkartearen ondoko plaza-txoan abestuko dute erretiratuak, 12:00etan. Jarraian luntxa izango dute Gure Ametsa elkartearen.

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

etxalar
kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

JAUJA
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Ion Murgizu
margoak

Margolanak orokorrean
Margo dekoratiboa
Margo industrialia

Esozia etorbidea 24, 2. behea
SORALUZE
943 75 13 24 / 652 777 030
liion@euskalnet.net

MINGAINARITIRAKA

KANPOTARRAKBERGARAN

JOAQUIM DINIS

50 URTE / PORTUGALDARRA / ORAIN DELA BOST URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Hemengo bizimodua gustatzen zait; ezin izango nuke Portugalgo bizimodura ohitu”

AINTZANE IRIZAR

Hamar urte zituela laga zuen bere etxea Joaquim. “Lisboara joan nintzen, eta hantxe, Frantziara lanera zihoan familia batekin elkartu nintzen; euren semea izango banintz bezala igaro nituen Espainiako muga lehenengo, eta Frantziakoa, ondoren”, gogoratzen du Joaquim.

Soldadutzara joan behar izaten zuten Portugaleko mutilak 16 urterekin; garai hartan, Afrikako kolonietara bidaltzen zituzten. Horixe izan zen Joaquimek Portugaletik alde egitearen arrazoia: “Nik ez nuen soldadutzara joan nahi, ez nuen afrikarrak hiltzer joateko asmorik”.

Mutiko koskor hura Parisen bizi zen anaiaren bila joan zen,

“Ez nuen soldadutzara joan nahi; horregatik alde egin nuen Portugaldik”

eta hantxe egin zituen hilabete batzuk. Azkenean, baina, anaia Euskal Herrira etorrita zegoela jakin zuen eta Irunera abiatu zen. “Hantxe, lanpostua eskaini zidaten, eta lantegi baten jardun nuen lanean”, azaldu digu. Baina, ez zuen anaiaren berririk izan. “Irunen lanean nenbilela, Elgoibarren eskaini zidaten beste lanpostu bat, eta hara joan nin-

tzen; ordutik, 1966. urtetik, Eibarren bizi izan naiz, orain dela bost urtera arte”. 2000. urtean, Bergarara etorri zen bizi izatera.

Elgoibarrera lanera joan orduko, anaia topatu zuen; horrelaxe gogoratzen du Joaquimek: “Elgoibarrera iritsi nintzen egunean bertan aurkitu nuen anaia; pentsio baten nengoen eta bi gizonetzko zeuden hantxe. Berriketari hasi ginen eta segituan oharitu nintzen euretako bat nire anaia zela”, diosku. Joaquimek ez zuen anaia ezagutzen, orduantxe ikusi zuen lehen aldiz. Harrezkero harreman estua izan du, izan ere, Eibarren bizi izan dira biak.

Eibarren bere emaztea izango zena ezagutu zuen eta gazte ezkondu zen; emaztea, baina, ez zen eibartarra, portugaldarra zen. Zela diren gauzak!

PORTUGALERA HIRU BIDAIA

Berrogei urte hauetan, hiru bidaiak besterik ez du egin Portugalera. “1977an bizuli nintzen lehenengo aldiz, nire egoera legez-tatzera; gero, 1981ean, emaztearekin eta seme-alabekin itzuli nintzen. Orain dela zazpi urte egon nintzen azkenekoz, aitaren hiletetan”, azaldu digu.

Hain gutxitan joan izanaren arrazoia da senideekin ez duela harreman handirik. Gainera, oso gustura bizi da Euskal Herrian, eta ez dauka hara bizi izatera itzultzeko batere asmorik: “Ni Portugale-ra bizi izatera? Ezta pentsatu ere. Niri hemengo bizimodua gustatzen zait; hango bizimodura ezin izango nintzateke moldatu”, diosku.

Ia berrogei urte Euskal Herrian bizi izaten daraman arren, gazteleraz hitz egiten duenean, portugaldar ukitu handia dauka: “Zenbat eta zaharragoa, orduan eta azentu handiagoa hartzen nabil”.

Euskara ikasten ere badihardu; umetan, Elgoibarren lanean jardun zuen urteetan, euskara ondo ikasi zuela kontatu digu: “Hango baserritarrekin lan egiten nuen eta ondo ikasi nuen, baina, gero, galdu egin dut eta berri-ro ikasteko ahaleginetan nabil”.



Arantza Otadui

TURISMO BULEGOKO LANGILEA

Maite eta Mayalenekin batera, Bergarako Turismo Bulegoan dihardu lanean Arantza arrasatearrak. 26 urte ditu eta Artearen Historian lizentziaduna da. El Prado museoan lan egin nahi luke, baina hemen ere oso gustura dabilela azaldu digu.

Astean zenbat turistaren bisita izaten du herriak?

Ekainaren 1etik 4ra, esaterako, 58 lagun etorri zaizkigu.

Ze erakargarri du Bergarak?

Inguru natural ederrak ditu eta ondare monumental oso garrantzitsua: erretaulak, dorretxeak, ikaskuntza gune garrantzitsuak izandakoak...

Ohiko bisita gidatua egin ondoren, herriko zein tokitara joateko gomendatu zenioke turista bati?

Aroztegi etxeko erakusketara joan daitezela; ondoren, poteoa egin dezatela, herriko jendea ere ezagutzeko; eta azkenik, herriko edozein jatetxetan afal dezatela, benetan ondo jango dute eta.

Turismo gidari moduan, non lan egin nahi zenuke?

El Prado museoan; dena dela, Bergaran oso gustura dihardut.

Eta turista moduan, zein herrialde bisitatuko zenuke?

Afrika eta Asiako herrialdeak, Kenya eta India, esaterako.

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Jendearekin egoteko aukera ematen didala eta baita ikasteko eta ikasi dudak horretan sakontzeko aukera ere.

Eta gutxien?

Domeketan lanera etorri beharra.

Egunkarian, zer da lehenengo irakurtzen duzuna?

Kulturako orriak; dauden erakusketen berriak bilatzen ditut.

Zer irakurri nahi zenuke bihar goizeko egunkarian?

Debagoieneko turista kopuruak nabarmen gora egin duela.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Lagunekin egotea, paseatzea, erosketak egitera joatea, zinemara joatea edo liburu on bat irakurtzea.

Liburu on bat?

Bernardo Atxagaren *Obabakoak* edo Mary Renault-en *El muchacho persa*.


Paseatzeko ibilaldi bat?

Besaidera joatea asko gustatzen zait; gainera, edozeinek egiteko moduko ibilaldia da.

Bukatzeke, amets bat?

Ametsak ez dira kontatu behar, bestela ez dira betetzen.

AINTZANE IRIZAR



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)
PSIKOLOGIA

OREKA

- HARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo kideekin
- UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ESTRESA
- EKIKADURA ARAZOAK
- AUTOESTIMA

Miriam Mujika 676 61 70 55 • Ainhoa Basurko 676 70 37 25
Aurrera edifizioa • Urtzaile kalea-1

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

GAZTELU
BURDINKI DENDA


Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

XVI. mendeko ze jauregitako balkoia da honako hau?



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

TERESA GURIDIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Teresa!

Galderaren erantzun zuzena: **Ezkerrekoa, Barrenkalen; eskumakoa, Bidekurutzetan.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Scottex komuneko papera

12 erroilu + 4 doan

2,90€

483 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

BERRIGARA

Ikasleak Algodoneran bisitari

Alboko argazkia 1978. urtean ikasle talde batek Algodonera lantegira egindako bisitaldi batekoa duzue. Adin askotariko ikasleak dira erretratuan azaltzen direnak.

Hauek dituzue, ezkerretik eskumara:

Aurrean: Aitor Beitia, Miguel Angel Askasibar, Ane Diaz, Amparo Etxaniz, Aitor Aranburu, Andoni Narbaiza, Xabier Aranburu, Alex Romaratezabala (atzerago), Mikel Andoni Olabarria *Woody*, Martin Olabarria, Joseba Erdabide, Santi Barrena, Miguel Angel Larrañaga (azken biak praka motzekin), Mikel Agirregabiria (betaurrekoduna), Jaime Rodriguez eta Jesus Mari Oregi.



Atzean: ezezaguna, Luis Mari Ugarte (erdi ezkutatuta), Josean Iñarra, Xabier Arraiago, Juanjo Basterra, Fernando Santamaria, ezezaguna, Goio Urbi-

na (aurrerago), Pedro Luis Gutierrez, Jordi Tarres, Andoni Narbaiza, German Muruamendiaraz, ezezaguna (atzean), Nartxi Azkargorta, Bigen

Muruamendiaraz eta Juan Jesus Etxeberriarteun.

Argazkia: Algodonera

FARMAZIEN TXANDA

- EGUBAKOITZA, 10**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ZAPATUA, 11**
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- DOMEKA, 12**
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 13**
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05
- MARTITZENA, 14**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 15**
MOZOS, Iparragirre 2 943 76 12 15
- EGUENA, 16**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
 - Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
 - Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
 - Ertzaintza 943 53 47 20
 - Osasun etxea 943 76 24 40
 - Asepeyo 943 76 16 43
 - Pakea 943 76 13 49
 - Angiozarko medikua 943 78 90 27
 - Antzuolako medikua 943 76 62 23
 - Odol emaleak 943 76 16 24
 - Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
 - Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
 - Udal Artxiboa 943 77 91 32
 - Igerilekuak 943 76 20 51
 - Kultura etxea 943 77 91 58
 - Liburutegia 943 77 91 62
 - Kiroldegia 943 76 56 41
 - Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
 - Erregistroa 943 76 13 15
 - Jardun 943 76 36 61
 - Postetxea 943 76 26 85
 - Bedelkar 943 76 04 68
 - Akulu AEK 943 76 05 18
 - Udal Euskaltegia 943 76 44 53
 - Bergarako notariatza 943 76 10 73

MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorluzue aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jaietxea.
- Labegaraieta/Olabarretik irteerak**
07:20 , 07:35 08:30 (Olatik), 09:20,
10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20,
13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20,
17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30,
19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Sakelako telefonorik baduzu? Zertarako erabiltzen duzu?



MIREN OLAÑETA

Bai, eta batik bat lagunei mezuak bidaltzeko erabiltzen dut. Gurasoek ez zuten nahi nik telefonoa izaterik; beraz, nik erosi behar izan nuen, baina orain batzuetan eurek ordaintzen dute telefonoaren kontua.



ENEKO MAGUREGI

Bai, hiru urte dira sakelako telefonoa daukadala. Lagunekin berba egiteko erabiltzen dut. Nik neuk nahi nuen telefonoa eduki, eta nik erosi nuen. Orain ere kontua nik neuk ordaintzen dut.



LEIRE IRIZAR

Bai, orain dela bi urte inguru ezkerro daukat, baina askorik ez dut erabiltzen, etxera deitzeko batez ere. Gurasoek erosi zidaten eta eurek ordaintzen dute faktura; horrela, pixka bat kontrolatzen naute.



PEDRO ESTEVEZ

Bai, badaukat eta batez ere deiak eta mezuak jasotzeko erabiltzen dut. Telefonoa nahi nuela esan nuen etxean, eta oparitu egin zidaten gurasoek. Horrela, ni kontrolatzeko ere erabiltzen dute telefonoa.



ITZIAR CASANELLAS

Ez daukat etxean ez dida telako lagatzen, baina noiz-bait eduki nahi nuke. Lagun batzuek badaukate, eta horrela eurekin hitz egin ahal izango nuke. Beharrezko uneetan ere erabiliko nuke.



ANDER BARRUSO

Ez, lagunen artean ere gutxi batzuek baino ez daukate. Edukiz gero ere ez dut uste askorik erabiliko nukeenik; beharrezko kasuetan baino ez nuke deituko, kanpora joanez gero edo horrelako kasuetan bakarrik.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK UDABERRIKO KONTZERTUA Irakurle musika-zale batek Musika Eskolako ikasleak txalotu nahi ditu Udaberriko Kontzertua dela eta. "Trikitilarien kalejirarekin lehenengo, eta pilotalekuko emandiarekin ondoren, musika giro polita zabaldu zuten herrian. Beraz, musikari guztiak txalotu nahi nituzke". /I.A.

BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru




Txakurra geldi-geldi eta adi geratu oilagorra edo beste ehizagairei bat somatzen duenean. — Txakurra neure aurrian parau jatan.

JON IRAEGI

BESTE EKESANA

“ Martinez de Irujok lehen zati ona egin duen arren, Aimar Olaizolak ez du partidua galdutzat eman. Lehen zatian Irujo ederki aritu da eta Aimar, berriz, gaizki, aukera batzuk huts egin ditu eta. Aimarrek partidua galduta zuela zirudienean lasaitu egin da eta hobeto jokatu du ordutik aurrera. Irujo ere lasaitu egin da, Aimarreki-ko zuen abantailan konfiantza zuelako, eta eraginkortasuna galdu egin du pilotak galtzen hasi delako. Orduan hasi zaio Aimar Irujori markagailuan hurbiltzen. Irujok sakaia eramaterako orduan zalantza asko izan ditu, Aimarrek ederki gurutzatu baitu pilota ezker paretara”
REYES AZKOITIA / Pilotari ohia 'Asteleheneko Goienkaria' /05-06-06

BERAIEK DIÑO / Unai Lopez



Gleneagles

Aurtengo San Ferminetako txupinazoak arerio gogorra izango du eguerdiko telebistako berrietan. Izan ere, urtero bezala G8ak, munduko zortzi nazio boteretsuenak biltzen dituen taldeak, hiru egunetako bilerari hasiera emango dio uztailaren 6an. Britainia Handira heltzen da oihartzun ikaragarri-dun ekitaldi hau antolatzeke txanda, Eskoziara alegia. Burrunbetatik urrun, apaltasun keinu bat balitz bezala natura erdian kokaturiko herrixka batek hartuko ditu zortzi agintari santu hauek.

berbak erabili ezean, salbatzaile hauek munduko txirotasun, gose, zor edo gaixotasunei irtenbidea aurkitzeko horrenbeste diru gastatu behar izana, milioika dolar pikutara. Sekula ateratako sasi-elkartasunez beteriko argazkirik garestiena zortzi hauena dudarik gabe, bestelakorik lortuko balute gaitzerdi. *Royal Suite* bakoitzeko 2.200 euro behar al dira erabaki zuzenak hartzeko? Badirudi logela garestiagoen premian dabiltzala, 30 urtetan G8ak hirugarren munduaren mugak zabaltzea soilik lortu baitu; erosotasun handiagorekin agian hobe...

“200 milioi dolarretako aurrekontua du zortzi jaun goren hauen egonaldiak”

Natura erdian, herrixka baten... non dago tranpa? Erresuma Batuko luxuzko hotelik famatuenean hartuko dute ostatu mandariok, Gleneagles ostatuan, Perthshire-en. 200 milioi dolarretako aurrekontua du zortzi jaun goren hauen egonaldiak, txantxa ona britainiar zergadunontzat. Gutxienez kontraesan itzela da, lotsagabekeria, zentzugabetasun edo adar jotze

Kontuak kontu, ikustekoak izango dira Britainia Handiko eta mundu osoko hainbat taldek antolaturiko protesta ekitaldiak. Segurtasun neurriak ere tamainakoak, hamar mila poliziatik gora. Hau dena zortzi hauek behingoz ikus dezaten beraiek direla mundu honetako kalteen benetako iturri.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 5	8 °C		
MAXIMOA Eguena, 2	33 °C		
ASTEKO EURIA (l/m ²)	0,7 L		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 1	24 °C	11 °C	- l/m ²
Eguena, 2	33 °C	9 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 3	20 °C	16 °C	0,4 l/m ²
Zapatua, 4	19 °C	14 °C	- l/m ²
Domeka, 5	24 °C	8 °C	- l/m ²
Astelehena, 6	24 °C	10 °C	0,3 l/m ²
Martitzena, 7	24 °C	12 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegia
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberebizbar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale



BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 10a / 247. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Udako kirol kanpainan, gaztetxo, heldu eta erretiratuendako ikastaro ugari

AINTZANE IRIZAR

Kirol jarduera ugari antolatu du aurten ere Udalak aurtengo uztaileko. Gazteek zein helduek izango du kirol kanpaina honetan parte hartzeko aukera. Bestalde, ingelesa ikasteko udalekuak ere antolatu dituzte, gaztetxoendako.

Uztaileko hainbat ikastaro antolatu ditu Udalak, eta hilaren 17an bukatuko da izena emateko epea; interesatuek udaletxera edo liburutegira jo beharko dute. Kontu korrontearen zenbakia eraman behar da izena emateko.

Gaztetxoenei dagokienez, aerobik ikastaroa egongo da, bate-tik; uztailearen 18tik 29ra, egunero, 11:00etan. Matrikulazioa 16 euro izango da. Bestalde, kirol ezberdinak egiteko beste ikastaro bat egongo da egun horietan, 10:00etatik 12:00etara. Kasu honetan, 21 euro ordaindu beharko da.

Helduendako, bestetik, patinaje, aerobik eta gimnasia ikastaroak egongo dira. Bi txanda egongo dira: uztailearen 1etik 14ra



Uztailean izango dira antolatutako kirol jarduera guztiak.

eta 18tik 29ra. Ordutegiak ere aukeran daude, patinajearen eta aerobikaren kasuan; gimnasia, 19:15ean izango da. Patinaje ikas-

taroak 16 euro balio du, eta besteek, 9 euro.

Azkenik, erretiratuendako gimnasia ikastaroa egongo da;

hemen ere bi txanda egongo dira; martitzen eta eguenetan izango dira saioak, 10:00etan. Matrikulazioa, berriz, 6 euro.

JAIA

Umeen Dantzari Eguna etzi, domeka

A.I.

Inguruko herrietako sei dantza talde etorriko zaizkigu herrira domekan, hilak 12, ospatuko duten Umeen Dantzari Eguna. Guztira, 160 bat umek parte hartuko dute egun horretan. Zortzi eta hamabost urte bitarteko umeak izango dira. Bi urtetik behin antolatzen du egun hori Oinarin dantza taldeak.

Bergarako Gazte-Alai, Arrasateko Lore-Gazteak eta Txikitxu, Aretxabaletako Loramendi, Sorailuzeko Urrats eta Antzuolako Oinarin; horietatik izango dira domekako parte hartzaileak.

DANTZAK ETA JAI GIROA EGUN OSOAN

Goizeko hamarretan emango diote hasiera jai egunari. Txistulariek kalejira egingo dute ordu horretan, domekero egiten duten moduan.

Ondoren, 10:30ean, kanpotik datozen taldeei harrera egingo diete. 11:15ean, talde guztiak kalejira egingo dute herri osoan zehar.

Goiz parteko dantzaldia 12:30ean izango da, Herriko Plazan. Talde guztiak batera dantza egingo dute. 13:30ean bazkaltzera joango dira guztiak, eta 17:30eko dantza saioarekin bukatuko dira ekitaldiak; talde bakoitzak bere dantzak eskainiko ditu.



Bi urtetik behin antolatzen du Umeen Dantzari Eguna Oinarin dantza taldeak.

LABUR

Matz-Errekak lantegi berria jarri du Bergaran

Ekainaren bukaeran martxan jarriko du Matz-Erreka kooperatibak Bergarako San Juan auzoan jarri duen lantegi berria. Oinezkoendako ate automatikoen negozioa eramango dute hara. 28 langilek dihardute negozio horretan. Bi milioi eurotik gorako inbertsioa egin du enpresak.

Kale garbitzailea kontratatzeko azterketa, gaur

Gaur, egubakoitza, egitekoak ziren kale garbitzailea kontratatzeko oposizio faseko bigarren azterketa. Lehenengo azterketara hamaika lagun aurkeztu ziren eta seik bakarrik lortu zuten froga hori gaiztuz. Gaurko azterketa udaletxean egitekoak ziren, 09:00etan.

1948an eta 1949an jaiotako kinto afaria, zapatuan

Bihar, zapatua, kinto afaria egingo dute 1948an eta 1949an jaiotakoek. Beste urte batzutan kanpora joan izan diren arren, aurten herrian bertan egingo dute afaria. Afalurretik txikiteoa egiteko elkartuko dira, 20:30ean, Zurrategin. Afaria 21:30ean izango da, Leku-Berrin.

Ingelesa ikasteko udalekuak datorren hilean

Ingelesa ikasteko udalekuak antolatu dituzte uztaileko, DBHko lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako ikasleendako. Uztailearen 1etik 14ra, 09:30etik 13:00etara, izango dira udalekuak, Errekaldoko lokalean. Matrikulazioa, 67 eurokoa da, eta ekainaren 17ra arte dago izena emateko aukera.

ELKARRIZKETA

JUAN ANTONIO URBELTZ/FOLKLORISTA ETA ANTROPOLOGOA

“Antzuolako alardean kontatzen zaiguna legenda bat besterik ez da”

A.I.

Datorren egunean, hilak 16, alardeen gaineko berbaldia egingo du Juan Antonio Urbeltzek. Olan etxeko aretoan izango da hori, 19:00etan. Antropologoa, etnografoa eta folklorista da Urbeltz.

Zein jatorri dute alardeek?

Bi motatako alardeak daude. Gipuzkoan, Foruek behartu egiten zuten alardea egitera; alkatza, gerrarako kapitain bezala, behartuta zegoen tropak ikuskatzera. Gizonak euren armetan aurkezten ziren plazan, desfilatuta egiten zuten, tiro saioak egiten zituzten... Horretaz gain, badago beste bat alarde mota bat orain aipatutako gertaera historiko horri ez dagokiona. Hori da Antzuolakoaren kasua. Metafora baten oinarritzen dira alarde hauek. Europan, gerrek ez dute sekula jairik utzi. Armetan egiten diren jaiak dauzkagu, baina, horien oinarria edo jatorria ez da gerra; metafora bat dira alarde horiek. Antzuolaren kasuan, mairua metafora bat da; alardearen oinarria ez da gertaera historiko bat. Alardean kon-

tatzen zaiguna, ustezko gertaera historiko hori, ez da legenda bat besterik. Ez dut uste dokumenturik dagoenik baieztatzen duenik Antzuolako mutilak Valdejunqueran egon zirenik eta handik mairua eta bandera ekarri zituztenik.

Mairua metafora bat dela diozu; hortaz, zer esan nahi du edo zer ordezkatzan du?

Mairua euskaldunon sinismen sisteman agertzen da, etengabe. Mairua metafora da: mairua bestea da, guregandik ezberdina dena. Norbera baieztatzeke, norberarengandik ezberdina den zerbait sortzen da: mairua da ezberdina, iluna, urrutitik datorren norbait... Alarde hori,


hortaz, norberaren indarra erakutsi eta historiara jaiotzeko era bat da; ezberdinen aurka borrokatu eta hura garaituz jaiotzen zara historiara. Antzuolako alardea tradizioaren eta folkloreaken parte da eta folklorea ez da historia.

Noiztik ospatzen da alardea eta ze aldaketa izan ditu?

Dauden lehendabiziko dokumentuak XVII. mendekoak dira, baina, seguruen, askoz lehenagotik etorriko da alardea. Oinarrian, ez du aldaketa handirik izan. Adibidez, durbantea zapaldu arazten zitzaion orain dela urte batzuk arte, eta hori kendu egin zuten, mairuarendako umilazioa zelako.

“Alardea da norberaren indarra erakutsi eta historiara jaiotzeko era bat”

“Europan, gerrek ez dute sekula jairik utzi; armetan egiten diren jaien oinarria ez da gerra”



ARGAZKI PRESS



Epi Perezen erakusketa Olanan

Epi Perez pintore antzuolarrak erakusketa zabalduko du oraingo asteburuan; zapatuan eta domekan egongo da zabalik, baita hurrengo asteburuan ere. Olan etxean jarriko dute margo erakusketa, eta honako ordutegia izango du: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. 40 margolan jarriko ditu Epik ikusgai. /A.I.

LABUR

Aitor Mendizabal Elgetako lau t'erdiko txapelketako finalerdietarako sailkatu da

Aurreko asteburuan, final-laurdenetako partiduan, 22-9 irabazi zion Mendizabalek Aurtenetxeri. Horrela, finalerdietarako sailkatu da antzuolarra. Ziurrenik, ekainaren 24an jokatu du finalerdietako partidua, Urrutikoetxea-Peñas partiduko irabazlearen aurka. Dagoeneko iazko emaitza gainditu du Aitorrek; izan ere, final-laurdenetan geratu zen orduan.

Karmen Irizar Valladolideko kartzelan dago, amaren hileta elizkizunetan egon eta gero

Aurreko domekan egin zituzten Madalena Aranguren Karmen Irizarren amaren aldeko hileta elizkizunak; hantxe izan zen Karmen. Bost minutuz bakarrik laga zioten Karmeni senideekin egoten, sakristian. Zapatuan ekarri zuten Langraitzeko kartzelara, eta astelehenean eraman zuten berriro Valladolidera.

Kadete mailako pilotariak finalerdietarako sailkatu dira Debarroko txapelketan

Debarroko txapelketan, lehenengo fasea bukatzeko partidu bakarra geratzen denean, kadeteek ziurtagarritasun dute finalerdietarako txartela. Aurreko asteburuan 2-22 irabazi zieten bergarrei. Martitzenean, hilak 14, dute hurrengo partidua Antzuolan, 19:30ean, Eibarren aurka. Nagusiek ere Eibarren aurka jokatu dute.

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki



Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko ekainaren 10a / 230. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Aralar eta Auzolanian ez dira ados Udalaren hainbat jokamolderekin

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bi urte pasa dira azken udal hauteskundeetatik. Bozketa egunaren aurretik alderdi bakoitzak aurkeztutako programetan hainbat eginbehar jarri zituzten hautetsiek. Agintaldi erdia pasa den honetan, herriko ordezkari politikoekin berba egin dugu egin direnen eta egiteko dauden gainean euren iritzia jasotzeko.

Gaur egun, batzorde guztietako buru den EAJ-EA koalizioak oso balorazio positiboa egin du agintaldiaren lehenengo erdiari dagokionez. "Asmo handiz betetako programa aurkeztu genuen eta pixkanaka, erritmo egokian betetzen ari gara bertan zehaztutako proiektuak", esan digu Patxi Basauri alkateak.

Programako hainbat gauza eginak dituzte jadanik edo jadanik hasiak dira, eta batzuek laster amaitzekotan gainera. Hala nola, saihebidetako lanak eta Bergararako bideko bihurtutakoak, errepideen gaiari dagokionez; Pagatzako industria-gunea; Uriarrea auzora ura eramateko lanak; eguneko zentroa; haurreskola; eta etxebizitzak.

Bestalde, agintaldi amaierara bitartean hainbat lan garrantzitsu egingo dituztela jakinarazi digute: pilotalekua berritzea, Maalako parkea, baserrietako bideak konpontzea, Torrealdeko eta Uriburuko etxeak...

Proiektu horiekin guztiekin 4.063.620 euroko inbertsioa egingo du Udalak.

ARALAR, ADOS EZ GESTIOAREKIN

Hezkuntza eta zerbitzu arloan zeuden zenbait gabeziari aurre egiteko, haurtzaindegia, ludoteka, garraio publiko eta eguneko zentroaren alde egin du Aralarrek. "Gabezia horiei erantzun egokia ematea, herritarrengandik jaso dugun laguntza eta hartu dugun esperientzia izan dira orain arteko alde positiboak", esan digute Aralarrekoak.

Guztia ez da positiboa izan euren ustez. "EAJ-EAk huts egin dio agintaldi hasieran eman genion konfiantzari, eta lan egi-



Udalean EAJ-EA koalizioko eta Aralarko zinegotziak daude agintaldi honetan.

teko moduak gobernutik irtetera derrigortu gaitu. Kezkagarria da Torrealdeko babes ofizialeko etxebizitzetan EAJ-EAk egiten diharduen gestioa, epeak atzeratuz doaz eta inork ez du azalpenik eman. Etxebizitzaren gainean gestio orokorra txarra izan da: babes ofizialeko etxebizitzak beharrezko tasatuak bultzatu ditu EAJ-EAk. Aralarrek etxabeetan eta ganbaretan etxebizitzak eraikitzeke ordenantza egitea proposatu du, eta EAJ-EAk ez du gura. Bestalde, Udalak etxebizitza hutsei zerga igotzea onartuta dauka, baina EAJ-EAk ez du bete".

Aralarrek agintaldirako diru sarreren eta gastuen plangintza egitea derrigorrezkoa zela esan zuen agintaldiaren hasieran. "EAJ-EAk ez du plangintzarik egin gura, eta egoera ikusita auditoria egiteko eskatuko dugu. Aurrekontuekin gertatzen dena ere aipagarria da; EAJ-EAren jardunean ohikoa da aurrekontuak puztea. Horrek eragiten du urte

Alkateak balorazio oso positiboa egin du agintaldiaren lehenengo erdiari dagokionez

batean onartzen diren proiektuak epeetan atzeratzea".

PLATAFORMAREN USTEZ GEHIEGIERIAK
Elgeta Auzolanian plataformako zerrenda-buru Edurne Alberdiren esanetan, egin diren hainbat gauzarekin konforme badira ere, hainbat obra zuzen ez direla egin salatu nahi dute.

"Industria-gunea handitzea eta horrenbeste etxebizitza egitea gehiegizkoa da Elgeta moduko herri baterako. Diru errazaren bila jo dute ondorioekin askorik pentsatu gabe. Gure alderdiak

hasieratik esan zuen beharrezkoa zela plangintza bat egitea orain hartutako erabakiek etorkizunean pisu handia izango dutelako, batik bat ingurumenean. Agenda 21 delakoarekin lanean dihardugu, baina plataformako beldur gara ez ote den lan hori ezerezean geratuko. Lehen ere egin zen azterketa bat, baina orduko asmoek ez dute aurrera egin. Udalak konpromisorik hartu ezan alferrik dira eztabaidak".

Hala ere, agintaldi honetan egindako hainbat gauzarekin ados azaldu dira Elgeta Auzolanianekoak. "Haurreskola eta eguneko zentroa egitea positibotzat jotzen dugu. Beharbada premia handia sortu baino lehen gauzatu dira proiektuok, baina gerora ere beharrezkoak izango direnez ongi deritzogu".

Beraz, alderdiak Udalak egindako hainbat gauzarekin ados eta besteekin konforme ez direla pasa dira bi urte, agintaldi erdia, alegia.

LABUR

Domekan autoak herri erdian ez aparkatzeko deia

Eskola Txikien Jaia dela eta, antolatzaileek herritarrei eskatu diete domekan autoak herriko erdigunean ez aparkatzeko; eta ahal dela garaje-etan sartzeko. Izan ere, debekatuta egongo da egun horretan aparkatzea bai erdigunean eta baita frontoi inguruan ere. Aparkatzeko industrialdeko jo beharko du jendeak.

Erretiratuek kuota ordaindu behar dute hilaren 19an

Erretiratuek elkarteko urteko kuota ordaindu behar dutela jakinarazi dute. Zuzendaritzako kideek ekainaren 19an Ozkarbi elkartearen jasoko dute dirua 11:00etatik 14:00etara bitartean. Bakoitzak zazpi euro ordaindu behar ditu.

Eusko-Tren txartela egiteko aukera hilaren 25era arte

Eusko-Tren konpainiak behar rapenak egiten dizkie erretiratuei bidaietan. Horretarako txartel bat eskuratu behar da eta hori egin nahi duenak Miren Villarregana jo behar du hilaren 25a baino lehen. NAREN fotokopia, txartelaren argazkia eta hiru euro eta man behar dira.

KIROLA

PILOTA

ETB KANTXA TXAPELKETA (FINAL LAURDENAK)

Ekainak 10

20:00: Berasaluze-Olaetxea (23 urtez azpitakoak)

Gero: Argote-Renobales (23 urtez azpitakoak)

Gero: Urrutikoetxea-Peñas (Kadeteak)

KULTURA

Pailazoak, kontzertua eta erakusketa Espaloia aretoan

I.A.

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte Espaloian datozen egunetarako. Bihar, zapatua, pailazoan saioa eta musika emanaldia izango dira; domekan Eskola Txikien Jaia; eta astelehenean Espainiako gerraren gaineko erakusketa inauguratuko dute.

Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoaren emanaldia izango da lehena. Zapatuan 19:00etan.

Pailazo ezagunen sona ikusita, etorkizuneko pailazo hirukotea prestatu dute eta Euskal Herrian egingo den lehenengo emanaldia Elgetan izango da. Mikel Otaegi izango da Txirri Junior, Kattalin Ansorena izango da Mirri Junior eta Fernando Ruizek Txiribiton Juniorren tokiak beteko du. Euren aurkezpen lana *Mirri-tel* deituko da.

Sarrerek lau euro balio dute; bi, bazkideendako.

Gauean musikak hartuko du tokiak Espaloian. Musika afroamerikarra ardatz duen Tres Hombres seikoteak jardungo du bertan. 22:30ean hasiko da kontzertua, eta jazz, blues, soul, funk, reggae, swing eta rithm&blues doinurik ez da falta izango.



GOIBEKOKALE

Tres Hombres talde madrildarrak zapatu gauean eskainiko du kontzertua.

Jairo Zabalak gitarrà jo eta abestu egingo du; Antonio Pax-Alvarezek baterian jardungo du; Javier Vacasek baxuan; Daniel Madariagak teklatuan; Gautama del Campok saxoan eta Norman Hoguek tronboian.

Kontzerturako sarrerek zortzi euro balio dute eta bazkideendako sei euro.

ERAKUSKETA

Domekan, Eskola Txikien Jaia dela-eta, jai girorik ez da falta izango Espaloian.

Astelehenean, berriz, Aranzadi elkartearen eskutik erakusketa ipiniko dute ikusgai. *Fusilatua* Gerra Zibilean da izenburua eta ekainaren 30era arte egongo da.

INGURUMENA

Zuhaitzak landatuko dituzte Egoarbitzan

I.A.

Egoarbitzan eta Gazteluaitzen Udalak lursailak ditu. Herriko baserriar batek eta basozainak haiek aztertu ostean, erabaki dute Egoarbitzako sei hektarea garbitzea eta zuhaitzak birlandatzea bertan.

Orain dela urte batzuk erre egin ziren Egoarbitzako sailak eta birlandaketa egin arren lehortek idor utzi zituen berriz ere inguru haiek.

PAGOAK ETA PINUAK

Pagoak landatuko dituzte ilara batean eta *larizio* pinuak bestean. Pinuek babes lana egingo dute eta gerora kentzea da asmoa.


Garbiketa lanak irailean egingo asmoa dute eta ondoren zuhaitzak azaroa eta abendua bitartean landatuko dituzte.

Basozainak aurkeztutako txostenaren arabera aurrekusi dute 15.000 euro beharko direla, horietatik 10.000 Foru Aldundiak ipiniko ditu.



GOIBEKOKALE

Aurrez ere egin izan dituzte garbiketa saioak Egoarbitza inguruan.



Ganadu gehiago Azoka Nagusian

Azoka Nagusia uztailaren 3an, domekan, izango da. Ohiko artisauek eta animaliez gain, aurtengo azokan egongo da berezitasunik. Izan ere, 25 urte beteko dira Azoka Nagusia egingo hasi zirenetik. Urtemuga hori ospatzeko eta azokari berari indarra emateko ganadu gehiago ekarriko dituztela jakinarazi digute Udaletik. Iaz 120 abelburu inguru izan ziren ikusgai, eta aurtun 30 gehiago egongo dira. Bestalde, hamar idi pare ere ekarriko dituzte./I.A.

AISIALDIA

Zabalik da Uda Kanpainako ekintzetan izena emateko epea

I.A.

Udal Kirol Zerbitzuak aurtun abian ipini du Uda Kanpainaren egitasmoa. Ekainaren 27tik uztailaren 29ra bitartean aisialdi eta kirol jardunaldiak eskainiko dituzte herritarrendako. Ikastaroetan izena emateko azken eguna ekainaren 17a izango da.

Adinaren araberako taldeak egingo dituzte eta guztira zortzi aukera izango dira.

Aisialdi jardunaldiak antolatu dituzte 3 eta 6 urte bitarteko umeendako. 6tik eta 12 urtera bitarteko umeek multikirola izango dute aukeran. Karatea eta aerobika egin ahal izango dituzte 8 eta 12 urte bitartekoek; eta piraguismoa eta tenisa 12 eta 16 urte artekoek. Gimnasia arina eta Tai-chia egiteko aukera emango zaie 16 urtetik gorakoei.

BERRIKUNTZAK

Iazko programarekin alderatuz, badaude hainbat zerbitzu berri:



KIROL ZERBITZUA

Besteak beste, 12 eta 16 urte bitartekoek piraguismoa egin ahal izango dute.

karatea, tenisa eta gimnasia lasaia. Bestalde, aisialdiko zerbitzua uztail osoan barrena eskainiko dute.

Izena emateko eta daten zein prezioen gaineko informazioa eskuratzeko Udal Kirol Zerbitzura jo behar da.

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 10a / 10. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: 55482/05

San Andres kooperatiba sortu zutenak omenduko dituzte etzi

OIHANA ELORTZA

Olaa auzoko jaiak dira asteburu honetan, eta jaien egitarauaren barruan, omenaldia egingo zaie, domekan, San Andres kooperatiba sortu zutenei. Ez dakite nolakoa izango den, sorpresa ei da eta. Gaur, egubakoitza, gaueko rock kontzertuarekin hasiko dira jaiak.

Etxebizitzaren arazoa egungoaren antzekoa ei zen duela 40 urte. Egoerari irtenbidea bilatu behar zitzaioela eta, kooperatiba bat sortzeko inizatiba hartu zuten herriko gazte batzuek. Bederatzi laguneko taldetxo osatu eta 1964ko azaroaren 30ean, San Andres egunean, eratu zen ofizialki San Andres kooperatiba.

"33.000 metro koadroko lur-saila erosi genuen. Guk ez genuen horren handia erosteko asmorik, baina Dukeak dena batera salduko zigula esan zigun", gogoratzten du Anjel Iturbek. "Garai hartan Bidaurretan amaitzen zen herria eta auzo honetan hiru base-ri eta bi enpresa zeuden, Maiztegi Txokolateak eta Mugartza zerratokia; eurekin negoziatu eta etxebizitzak egiten hasi ginen",

jarraitzen du Gurutz Jausorok. Oñatiko jende askok eman zuen izena etxea erosteko. "Hainbat fasetan egin genituen etxebizitzak; lehendabizikoan 220; guztira, 414", dio Jausorok.

GARAJEA ETA IGOGAILUA

"Bilera asko egin genituen elkarrekin eta genuen ilusioarekin eta fedearrekin aurrera egin genuen", dio Anjel Iturbek. "Jendeak ere oso ondo erantzun zuen, denek errespetatu zituzten ordaintzeko epeak eta kopuruak", gaineratu du Gurutz Jausorok.

Etxebizitzak egiteko orduan Europako estiloak izan zituzten kontuan. "Ikusten genuen Alemanian, adibidez, gero eta auto gehiago zeudela, eta hemen ere berdina pasako zela pentsatuz, garaje bana egin genion etxe bakoitzari, nahiz eta erosleek autorik eduki ez", gogoratzten du Anjelek. Gurutzek, berriz, igogailuarekin ez zutela asmatu dio: "Lehenengo etxeak igogailu gabe egin genituen eta denborak erakutsi digu huts egin genuela".

OMENALDIA

Bizilagunei zerbitzuak emateko, taberna bat eta denda bat ere



Gurutz Jausoro eta Anjel Iturbe dira San Andres Kooperatibako sortzaileetako bi.

jarri zituzten. San Andres kooperatibak lanean jarraitzen du gaur egun ere. Gurutz Jausoro, Anjel Iturbe, Julio Romano, Anto-

nio Mugartza, Roberto Zubia, Teofilo Etxegoien, Jaime Agirre, Luis Mugartza eta Jose Luis Ibarrola dira omenduak.



Herri Eskolako etxea errentan

Errekaldeko Herri Eskolan dagoen Kontserjearena deituriko etxea errentan ematea erabaki du Udalak. Hileroko errenta ikastetxean bertan egin behar diren hainbat lanen bidez ordainduko du maizterrak. Etxea errentan hartzeko eskaera egiteko epea uztaillaren 1era arte dago zabalik. Mantentze-lanetan formazioa izatea eta atezain eta garbitasun lanetan esperientzia izatea baloratuko dituzte, besteak beste. Azken bost urteotan Elena Maiztegi izan da atezaina. /O.E.

LABUR

Oñatiko 45 gaztek egin dute selektibitatea

Aurten Oñatiko 45 gaztek egin dute selektibitatea, unibertsitatera sartzeko proba. Horietatik 27 Txantxiku Ikastolako ikasleak dira eta gainerako 18ak Elkar Hezi Ikastetxeko batxilergoko ikasleak. Eibarren egin dute guztiak. Eguaztenean izan zituzten probaren lehen azterketak eta gaur, egubakoitza, bukatu dute unibertsitatera sartzeko behar duten agiria lortzeko gauditu behar duten proba. Selektibitatea gaudituz gero, ikasketak unibertsitatean egin ahal izango dituzte. Datoren egunetan jakingo dituzte azterketaren emaitzak.

EAEn, 8.000 gaztek baino gehiagok egin dute aurten selektibitatea. Lehendabiziko aldiz, gainera, gehiagok egin dute euskaraz gazteleeraz baino. Iparraldeko ikasleek ere aste honetan egin dute eta nafarrek hurrengoan.

Txirrindulari lasterketa dute kadeteek zapatuan

Kadete mailako txirrindulari lasterketa egingo dute bihar, zapatua, goizean. XVIII. Olatua txirrindulari proba izango da. Lasterketa goizean izango da, 10:30ean, eta hasiera eta bukaera biak izango ditu Olaa auzoan. Oñatitik Bergarara joango dira lehendabizi txirrindulariak, handik Oñatira etorriko dira berriro, Udanan gora Legazpira joango dira gero eta berriro bueltatuko dira Oñatira. Ahateen parean jarriko dute aurten ere helmuga. Guztira 57 kilometro ditu ibilbideak eta zazpi txirrindulari oñatiarrek hartuko dute parte.

Bestalde, bi oñatiar izan ziren garaileak joan den zapatuan Azkoitian jokatu zituzten bi txirrindulari probetan. Alebin mailan Aritz Anduagak irabazi zuen, urteko selgarren garaipena eskuratu. Gaztetxoan mailan, Ander Altubek irabazi zuen.



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak

Astra GTC berria

Hain da dinamikoa, begiratu eta gerrikoa

jarri beharko duzu



Begiratu, hori bakarrik egin behar duzu. Opel Astra GTC berria arintasunarekin eta segurtasunarekin mugitzeko pentsatua dago. Ondorengo motorrak: 2.0 Turbo 200 ZP eta diesel CDTI 150 ZPraino, IDS eta Sport Switch sistemak, AFL faro moldakorrak, haizetako panoramiko eskusiboa, ESP egonkortasunaren kontrol elektronikoa, 6 aire-zaku, abiaduraren kontrola, barruko nabigatzailea, irratia-MP3 eta telefono integratua, 18" aleaziozko hagunak. Gidatzean disfrutatzeke behar duzun guztia.

www.astragtc.com.es

GMAC FINANCIAL SERVICES

Proba ezazu 3 egun* konpromisorik gabe ondorengo telefonora deituta 902 21 23 23, edo zure Opel Banatzailean.

Promozio baliagarria 2005eko maiatzaren 7tik ekainaren 30era. Probak egingo dira banatzaileek modelo honetako autoa prest baldin badute. Ondorengoentzako baliagarria: banatzaileen sarearentzat eta promozio honetan parte hartzen duten Espainiako Opel Salmenta Ofizialeko Agenteentzat. Natorio aurrean utzitako oinarriak eskuragarri. Irakurri ondo, mesedez, autoa erabiltzeko dokumentuan agertzen diren baldintzak. Astra GTC: Kontsumoa (l/km) mistoa 4,8tik 9,3ra. CO₂ emisioa (g/km) 130etik 223ra.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE
www.giauto.es

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:
Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA
www.giauto.es

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Justo Garate 1. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Olanar etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA

Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXEA Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

UNZUETA Irene San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irupe Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

OTORRINOLARINGOLOGOA

IGARTUA ALMANDOZ Julian Barrenkale 35-1 ezkerre. 943 76 70 91 630 653 202

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotritzitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.